


Kalkulagailu lanak egiten dituzten zelulak

AEBETAKO MIT institutuan lan egiten duten hainbat ingeniari kalkulagailu bihurtu dituzte bakterio-zelulak, eta haien bitartez batuketak, kenketak, zatiketak, erro karratuak edo logaritmoak kalkulatzeko era lortu dute.

Batuketa egiteko, adibidez, bi zirkuitu prestatzen dira, bakoitza molekula zehatz batekin aktibatzen delarik. Lehenengo zirkuituan, arabinosa izeneko azukreak GFP proteina sortzen duen genea aktibatzen du. Bigarren zirkuituan, AHL molekula ere GFP proteina sortzen duen genea ekoizten du. Guztizko GFPak adieraziko digu zein den arabinosa eta AHL kopuruen batura zehatza.

Ikerketa lan hauen aplikazio nagusiak terapeutikoak izan daitezke. Adibidez, sistema hori baliatuz, tumore-zelulak detektatu eta erasotzeko zelulak sortzerik izango dela uste da. Hala ere, bioingeniaritza saiakuntza hauek badituzte arriskuak; esaterako, patogeno kaltegarriak sortzea ustekabea. ■



Zientziak gero eta interes handiagoa sortzen du

Elhuyar Fundazioak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta EHUko Kultura Zientifikoren Katedrak elkarlanean egindako azterketaren emaitzak aurkeztu zituzten uztailaren 10ean. Adierazi zutenenez, eskal gizarteak zientziaz eta teknologiaz duen interesa orain zazpi urte baino %11 handiagoa da.

ttiki.com/53339
(Euskaraz)

Gero eta kide gehiago hizkuntza industriaren elkartean

2010ean sortu zen Langune, krisi garaian alegia. Hiru urte hauetan egituraketatik enpresa bazkideei zerbitzu ematera igarotzen ari da; bilakaera ona da, beraz. Kontuan hartu behar da European zein munduan dauden era horretako enpresa multzo bakarretakoa dela.

ttiki.com/53340
(Euskaraz)

“Bio” jateak onura dakarkie euliei

SAIAKERA INTERESGARRIA egin berri dute *Drosophila* espezieko euliekin. Euliak 200eko taldetan banatu eta multzo bati bio patata, beste bati bio mahatsa, beste bati bio banana eta beste bati bio soja eman dizkiete euren bizitza osoan. Gainerakoei, berriz, produktu berdinak baina bio ez direnak.

Bio patata, mahats eta sojarekin elikatutako euliek batez besteko zein gehienezko biziraupena hobetu dituzte, gainerako taldekoenekin alderatuz. Hobekuntzak oso nabariak izan dira arlo batean zein bestean.

Ugalkortasuna ere aztertu dute ikerlariek, eta horretan ere hobekuntza nabaria izan dute bio jan dutenek. Datuak ezin dira bere horretan gizakira estrapolatu, baina herri jakintza dena jakintza zientifiko bihurtzeko lehen urratsa izan daiteke. ■



Drosophila eulia.

THOMAS WYDRA-CC BY SA



Heriotza arrisku handiagoa Espainian, osasungintzako murrizketak direla eta

Erresuma Batuko hainbat erakunde azken urteotan Espainian egiten ari diren osasungintzako murrizketen ondorioak aztertzen ari dira. Aurreikusi duteenez, hiesak eta tuberkulosiak gora egingo dute, eta bizi itxaropena aurreko hamarkadakoa baino txikiagoa izango da.

ttiki.com/53341
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16